

Gaitasun bilana

ALDAZIA

FORMAKUNTZA PROGRAMA



GAITASUN BILANA : garapen profesionalari buruz gogoeta bat eramaiteko formakuntza dispositiboa.

FORMULAK	Iraupen osoa	Elkarriketa indibidualak	Lana distantzian	Prezioa
KIMUA	18 oren	10 oren	8 oren	1300€
LORE	24 oren	16 oren	8 oren	1800€
LANDARE	24 oren	16 oren (horietan 6 oren 2 profesionalekin)	8 oren	2400€



GAITASUN BILANAREN PROGRAMA

1) HELBURUAK :

Lehen helburua ikasleak bere gaitasunei eta motibazioei buruzko pundua egin dezan ahalbidetzea da, proiektu profesional berri baten definitzeko.

Horrela, banakako formakuntza denbora horrek bere hautuak orientatzea ahalbidetzen du, nahi pertsonalak baita errealitate ekonomiko eta soziala kondutan hartuz.

2) XEDEAK GAITASUN MAILAN :

- ibilbidea identifikatu eta historia pertsonalari eta profesionalari zentzua eman
- norberaren ezagutza hobea ahalbidetzea (zentzua, beharrak, baloreak eta nortasuna)
- formakuntza ibilbide bat eta / edo proiektu profesional koherente bat eraikitzea
- aldaketa bizitzea
- bere baitako konfiantza aurkitzea (gaitasunak, beharrak eta gogoak...)
- orientatzeko gaitasuna garatzea

3) PUBLIKOA :

Gaitasun bilana publiko mota guzietan zuzendua da (soldatadun, lan eskatzaile, independente), edozein diploma mailarekin eta edozein sektore eta ibilbide profesionaletan.

Gure egiturako gelak egokiak dira mugikortasun urriko pertsonentzat. Elbarritasun egoeran diren pertsonendako, aintzinetik lantzen dugu proposamen egoki bat.

4) AURRE BEHARRAK

Bilana hasteko, aintzinetik ez da maila beharturik.



5) MODALITATEAK

Iraupena : Hautatu formularen arabera.

Mota : Presentziala (distantziala posible da)

Guneak : Bulegoak Baionan, Itsasun, Larzabalen, Bidarrain, eta bulego ibiltaria.

Metodoak eta baliabide pedagogikoak: Test bereziak, galdeketak, ikerketa profesionalak, lanbide-inkestak, ariketak, lan kaiertxoak, sintesia bat idatzirik.

Formakuntzaren egiazkotzea : Formakuntzaren froga agiria

4) IRAGAITEA :

Gaitasun bilanak hiru fase (aitzinsolasa, ikerketa eta konklusioa) jarraitzen ditu. Iraupena, hautatu gaitasun bilanaren formularen arabera da.

Aitzin-fasea:

Galdearen azterketa, desmartxaren aurkezpena eta helburuen zehaztea.

Ikerketa fasea:

1. Bilan pertsonala eta orientazio eta nortasun galdeketak :

- * Ibilbide pertsonalaren eta profesionalaren azterketa,
- * Baloreen, interesguneen, motibazioen eta nortasunaren esplorazioa,
- * Bizi orekaren inguruko gogoeta.

2. Ofizioaren/merkatuaren azterketa eta dokumentu-ikerketak:

- * Garapen profesionalerako bide posibleen esplorazioa,
- * Trebetasunen analisia: jakintzak, egin jakiteak eta izanjakiteak,
- * Aukeren identifikatzea, proiektuaren eta ekintza planaren definitzea.

Konklusio fasea:

Proiektua, indar guneak, aurrerapen ardatzak eta ekintza plana biltzen dituen sintesia.

Gaitasun bilanaren iraupen osoak barne hartzen ditu elkarriketa denborak (presentziala edo urrunekoa) eta euskarri numerikoaren eta proposatu ariketen bidez gidatutako lan denborak. Lan pertsonaleko denborak eta lanbide ikerketei eskainiak, gutxienez 8 oren ikerketa egiteko, gaitasun bilan denbora osoan sartzen dira.



5) ELGARREKILAKO IBILBIDE PEDAGOGIKOA

Zurekin bide eginen dugu bilana osoan : erreferente bakar bat ukanen duzu pertsona aldaketarik gabe. Konfidantzazko harreman batean sartuz elgarrekin lan eginen dugu buruz buru.

ALDAZIAk formatzaileen ustiapen gaitasunak bermatzen ditu. ALDAZIAko formatzaileek aholkularitza-izaera dute, garapen profesionalean ziurtatuak, eta/edo esperientzia esanguratsua dute ustiapenan. Haien erreferentziak AldaZia webgunean kontsulta daitezke.

6) SEGIPENAREN ETA EKINTZAREN EMAITZEN BALIABIDEAK :

- Gaitasun bilana bukatzean, aholkulariaren eta hartzailearen artean sintesia bat aztertua eta partekatua izanen da. Dokumentu hau hartzaileari emana izanen zaio,
- Gaitasun bilanean zehar, hartzaileak presentzia egiaztagiri bat betetzen du,
- Gaitasun bilana bukatzean, hartzaileak gogobetetasun galdesorta bat betetzen du, formakuntzaren ekarpenen ebaluatzeko,
- Sintesia eman eta sei hilabeteren buruan, formatzailea berriz hasten da hartzailearekin harremanetan, bere proiektu, oztopo eta lorpenen berri emateko elkarriketa batean (fisikoa edo telefonikoa).

7) IZEN EMAITE ETA ABIATZE EPEAK :

Prestazio eskaera bakoitzarentzat aurrekondu bat igortzen da, zenbatekoa den zehazten duena baita gauzatze data guztiak.

Aurrekondua formatu elektronikoan igorria da email bidez edo bide desmaterializatuaren bidez, moncompteformation.gouv.fr aplikazioaren bidez. Nortasun numerikoa beharrezkoa da Formakuntzako Kontu Pertsonala (CPF) erabiltzeko.

Aurrekondua onartu eta baita formakuntzaren kontratua edo hitzarmena izenpeturik, prestazioa gutxienez 14 eguneko epea errespetatuz abiaraz daiteke. Epe hori aldakorra da finantzamendu iturrien arabera.

Saioen aurreikuste plangintza bat formatzaile erreferenteak proposa dezake izena emaitzeko momentuan.

8) PREZIOA :

Begiratu gaitasun bilaneko hiru formulak edo aurkeztua den aurrekontua (edo CPF konduetik egina den manaketa / moncompteformation.gouv.fr). Formakuntza eskaintza hau CPF konduaren hautagarrien barne da.



GAITASUN BILANEKO HIRU FORMULAK

KIMUA FORMULA 18 oren	LORE FORMULA 24 oren	LANDARE FORMULA 24 oren Horietan 6 oren 2 profesionalekin
Lehen hitzordua urririk eta engaiamendurik gabekoa : beharren analisia eta programaren ko-eraikuntza.		
Buruz buruko elkarrizketak 10 orenez 2 oreneko 5 hitzordu + 8 orenez distantzian eraman lanak, ikerketak, eta inkestak.	Buruz buruko elkarrizketak 16 orenez 2 oreneko 8 hitzordu + 8 orenez distantzian eraman lanak, ikerketak, eta inkestak.	Buruz buruko elkarrizketak 16 orenez 2 oreneko 8 hitzordu (horietan 3 hitzordu 2 profesionalekin) + 8 orenez distantzian eraman lanak, ikerketak, eta inkestak.
Elkarrizketak zuzenean edo distanzian egiten ahal dira.	Elkarrizketak zuzenean edo distanzian egiten ahal dira.	Elkarrizketak zuzenean edo distanzian egiten ahal dira.
Gaitasun bilanean berezitua den formatzaileak du bilana eramaiten pertsonarekin.	Gaitasun bilanean berezitua den formatzaileak du bilana eramaiten pertsonarekin.	Gaitasun bilanean berezitua den formatzaileak du bilana eramaiten pertsonarekin.
« KIMUA » gaitasun bilanak 8 eta 12 asteren arteko iraupena du, elkarrizketa saio bat finkatuz 2 astetatik behin.	« LORE » gaitasun bilanak 12 eta 16 asteren arteko iraupena du, elkarrizketa saio bat finkatuz 2 astetatik behin.	« LANDARE » gaitasun bilanak 12 eta 16 asteren arteko iraupena du, elkarrizketa saio bat finkatuz 2 astetatik behin.
Saio bakoitzarentzat segipen kaiertxo eta ALDAZIAren sintesia bilana bururatzean.	Saio bakoitzarentzat segipen kaiertxo eta ALDAZIAren sintesia bilana bururatzean..	Saio bakoitzarentzat segipen kaiertxo eta ALDAZIAren sintesia bilana bururatzean..
1300€ TTC 18 oren formakuntza	1800€ TTC 24 oren formakuntza	2400€ TTC 24 oren formakuntza Horietan 6 oren 2 profesionalekin



9) GAITASUN BILANAREN DIRUZTATZEA

CPF :

Gaitasun bilana CPF (Compte Personnel de Formation) konduaren bidez diruztatu daiteke, erabilgarria da pribatuko baita publikoko soldatadunentzat.

Pribatuko soldatadunentzat, nortasun numerikoa izanez geroz, galdea <https://www.moncompteformation.gouv.fr> konduatik egiten da.

OPCO eta/edo ENPRESAKO GAITASUNEN GARAPENAREN PLANOA :

Gaitasun bilana, enpresako gaitasunen garapenaren planoaren bidez diruztatu daiteke (enpresa, elkarte, kolektibitate).

Diruztatze osoa lortzen ahal da baita lan denboran bilanaren saioak egitea ere bai. Zuzenean, enpleatzaileak edo enpresako OPCO kutxak bere gain hartuko du.

Independententzat, OPCO kutxa galdezketatzen ahal da.

FRANCE TRAVAIL :

France Travail egiturako AIF (Aide Individuelle de Formation) dispositiboak diruztatzen ahal du gaitasun bilana, enplegu galdegileentzat.

AUTO-DIRUZTATZEA :

Norberak bere baliabide pertsonalen bidez diruztatzen ahal du gaitasun bilana.

BESTE :

Beste dispositiboak badaude, bereziki elbarritasun egoeran diren pertsonentzat.

10) ESKABIDEA

Gure prestazioaren kalitate segimenduaren barne, gaitasun bilanaren edozein momentutan, eskabide bat egin daiteke.

Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali behar da info@aldazia.com helbidera, Aldaziarekin harremanetan jartzeko datuak adieraziz eta eskaeraren xedea zehaztuz.